



## ELKAR MUGITUZ EGINGO DUGU

**Ariketa masiboa.** Euskaraldia euskara ulertzen duten hiztunen ahozko hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa sozial masiboa da, euskararen erabilera handitzeko. Inertziak apurtu, gizartearen eragin eta herriz herriko euskaltzaleak elkarrekin aritzeko unea ere bada.

**Rolak.** Euskaraldia helduen aktibazioan oinarritzen da eta bi rol proposatzen ditu: AHOBIZI eta BELARRIPREST. Eta espazio zehatzetan, euskaraz lasaitasunez egiteko: ARIGUNEAK daude.

**Datuak.** Azkenekoan ia 160.000 lagun inguruk eman zuten izena, %75 ahobizi eta %25 belarriprest. Eta 8.000 entitatetik gora parte hartu zuten. Erabilera %9 inguru handitu zen kanpaina bitartean eta ondoren %5.

## MOVIENDONOS LO CONSEGUIREMOS

**Ejercicio masivo.** Euskaraldia es un ejercicio social masivo para cambiar los hábitos lingüísticos orales de los hablantes que entienden el euskera, con el fin de aumentar su uso. También es el momento de romper inercias, de influir en la sociedad y de que los euskaltzales trabajen juntos pueblo a pueblo.

**Roles.** Euskaraldia se basa en la activación de los adultos y propone dos roles: AHOBIZI y BELARRIPREST. Y en espacios concretos, para hablar en euskera con tranquilidad: los denominados ARIGUNEAK.

**Datos.** En la última edición se inscribieron cerca de 160.000 personas, el 75% ahobizi y el 25% belarriprest. Y participaron más de 8.000 entidades. El uso del euskera aumentó en torno al 9% durante la campaña y después un 5%.

## Euskaraldian izena eman nahi dut (apirilak 11 arte):

*Quiero inscribirme en el Euskaraldia (hasta el 11 de abril)*

<https://forms.gle/xbS216SqsPkkaL1C9>



### AHOBIZI edo BELARRIPREST?

Euskara ulertzen dudanez eta nire hizkuntza-ohiturak eraldatu nahi ditudanez, Euskaraldian parte hartu nahi dut. Baina zein rol aukeratuko dut?

Ariketa izango den 15 egunetan ulertzen duten guztiekin euskaraz egiteko prest al zaude?

**BAI, BETI**

- 1) Lehen hitza euskaraz egingo dut.
- 2) Elkarriketa elebidunetan euskarari eutsiko diot.

**BAI, NAHI ETA AHAL DUDANETAN**

- 1) Dakitenei niri euskaraz hitz egiteko eskatuko diet uneoro.
- 2) Egoeraren arabera erabakiko dut euskaraz noiz egin.



### ¿QUIÉRES PARTICIPAR EN EUSKARALDIA?

¿Durante los 15 días de Euskaraldia estás dispuesto/a hablar en euskera con las personas que lo entiendan?

**SI, SIEMPRE**

- 1) Mi primera palabra será siempre en euskera
- 2) En conversaciones bilingües seguiré hablando en euskera



**SI, SEGUN LAS CIRCUNSTANCIAS**

- 1) Pedirás activamente que siempre se te dirijan en euskera
- 2) Quizá no hables euskera en todo momento con tod@s l@s que lo entiendan, pero lo harás siempre que puedas y quieras.



**NO**

Todavía no sé suficiente euskera como para entender una conversación sencilla.

**EN ESTE CASO**

- 1) Sabes más euskera del que crees. Utiliza lo que sepas, por poco que sea.
- 2) Eres imprescindible en la normalización del uso del euskera. Toma un papel activo en defensa y promoción de la lengua.
- 3) Te esperamos en la siguiente edición.

## Ahobizi ala Belarriprest

Parte hartzeko bi era daude. Izena ematean, bakoitzak aukeratuko du zein den hartu eta bete nahi duen rola. Maiatzean, guztiok batera egingo dugu ariketa, **ahobizi** edo **belarriprest** garen adierazten duen txapa soinean dugula.

- **Ahobizi.** “Euskaraz ulertzen duten guztiakin euskaraz egiten dut uneoro. Kideek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean lehen hitzak, beti, euskaraz egiten ditut; euskaraz ulertzen badute, euskaraz jarraitzen dut”.
- **Belarriprest.** “Aldiro erabakitzen dut euskaraz noiz eta norekin egin. Agian, beti ez dut euskaraz egingo ulertzen duten guztiakin, baina euskara dakitenek niri euskaraz hitz egitea nahi dut, eta horixe eskatzen diet modu esplizituan”.

Info: <https://euskaraldia.eus/belarriprest-eta-ahobizi-2025>

## Arigune hori... zer da zehazki?

**Arigunea** euskaraz egiteko gune bat da, ez da gauza pertsonal soil bat. Leku horretan kartel bat jarriko dugu. Mahai gainean jarri ahal dugu, atean eskegi... eta horrela gure lantokira datorren pertsonari esango diogu: “hemen euskaraz egin dezakezu lasai”.

Gainera, barrura begira ere balio du, lankideon artean euskara gehiago egin nahi baldin badugu jar dezakegu eta, bi aste horietan konpromisoa hartu dugula adierazteko eta gogorarazteko.

Euskarriak nahi badituzu, idatzi zenbat behar dituzun eta dohainik bidaliko dizkizugu: [basqueproeus@bm30.eus](mailto:basqueproeus@bm30.eus)

## BEGIZTA: EUSKARAZKO TELEBISTAK IKUSTEKO KANALA

Euskal Herrian euskaraz jarduten duten tokiko telebistak eta Estatu espainiarreko Lurreko Telebista Digitaleko kate guztiak eskaintzen dituen internet bidezko telebista da Begizta.



Munduko edozein txokotatik euskarazko tokiko telebista kateak atzitzeko modu eroso eta bateratua eskaintzen du, ondoko loturan:

<https://www.izarkom.eus/begizta>

## Ahobizi o Belarriprest

Hay dos formas de participar. Al inscribirse, cada persona elegirá cuál es el rol que quiere asumir y desempeñar. En mayo haremos este ejercicio masivo t con la chapa que indica si somos **ahobizi** o **belarriprest**.

- **Ahobizi.** “En todo momento hablo en euskera con las personas que entienden euskera. Cuando no sé si entienden o no, siempre empiezo a hablar en euskera y si entienden sigo en euskera”.
- **Belarriprest.** “Cada vez decido cuándo y con quién hablar en euskera. A lo mejor no siempre voy a hablar en euskera con todas las personas que lo entienden, pero quiero que las que saben me hablen en euskera y eso es lo que les pido explícitamente”.

Info: <https://euskaraldia.eus/es/belarriprest-eta-ahobizi-2025/>

## Eso del Arigune... ¿qué es exactamente?

El **arigune** es un espacio para hablar en euskera, no es un simple tema personal. En ese lugar pondremos un cartel encima de la mesa, colgado en la puerta... Y así diremos a la persona que viene a nuestro lugar de trabajo: “aquí puedes hablar en euskera tranquilamente”.

También vale de cara al interior, si queremos hablar más euskera entre los/as compañeros/as, podemos ponerlo para expresar y recordar que nos hemos a ello comprometido en esas dos semanas.

Si quieres los soportes, escribe cuántos necesitas y te los enviamos gratis: [basqueproeus@bm30.eus](mailto:basqueproeus@bm30.eus)

## BEGIZTA: CANAL PARA VER TELEVISIONES EN EUSKERA

Begizta es la televisión por internet que ofrece todos los canales de la Televisión Digital Terrestre del Estado español y los canales locales en euskera de Euskal Herria.

Ofrece una forma cómoda y unificada de acceder a las cadenas locales de televisión en euskera desde cualquier lugar del mundo, en el siguiente enlace:

<https://www.izarkom.eus/es/begizta>